

«Maite ditugun olerkariak» Josemari Zendoiarekin

(interpretazio laburra eta pertsonala osoki)

Josemari Zendoia-rekin, iragan eguna, itsasoak, inkonzientziari dakarkien kresal arrapo eta uhain biziez beteritako gertaera bat bezala bizi izan dugu.

Donostiako ur eremu zabaletik Senpere-Ainhoako iratzezko ozeanotara doatzin bidexkak, dira mila. Mila, ere, dira, bidexkak, gure mundu harrigarri honen ezagutzeko, Josemari-ri, etengabeki, jakinminak sortarazten dizkienak.

Uraren gainean ura hunkitu gabe doan poeta bat bezala Josemarik ereman gaitu bere hitz hautatuekin itsasoaren ametsak eta erranahi ezkutatuak aurkitzera. Ezin zilatu daitezken ilunabarrak, faroek mihatzen dituzten bezala, bere begi ilargikari zorrotzak gelditu gabe dabiltza itsasoaren egoera aldakorren zai.

Ohargarria da zonbatetaraino itsasoak hildokatu duen bere izaera. Dio «*Olatuak existitu izan ez balira nik ez nukeen inoiz hitz bakar bat ere idatzi izango, baina ez olatuen izate ezagatik, baizik eta olatuak izan ez balira inork ez zituzkeelako inoiz deskribatu izango*». Beste olerki batean ere itsasoa eta hitzen arteko bidea azaltzen du, erakutsiz «biziaren «genesis»-a itsasoan hasten dela eta garatzen «hitz» izan arteraino. Hau da, bai, milioi eta milioiko bide luzea, baina segunda batzuez alderantziz egin dezakeguna...

*Itsasoa! ... zuregana heltzeko modua aurkitzen dut: **hitza**.*

Orain zure erresumako biztanlea naiz!

Bidaia guziez gose, Josemariren itsasoa lurraren eta zeruaren eremua ere da. Bere sentsibiltateak basamortuko harea negarrez bustiko luke eta espazioan, izar astroak gizakiekin lerrokatuko. Gainera, bere poesia ez da inoiz sartzen burutazio ilun eta ezezkorretan, noski «suerte ona – daukan izar» baten pean sortua dela susmatzen duelakotz, eta, nahiz, beharbada, egun batez, itsasontzia hondoratua izan, zuhaitz enbor bati helduta, badaki, olatuek berriz hondartzara, osorik eta sanorik ekarriko dutela.



Bai horrelakoa da Josemari Zendoia!

Auxtin Zamora